BIZKAIA
ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2022

# Beaz 2022 Bizkaia

**Berritzailea eta lankidetzako ekosistema bat**
Un ecosistema colaborativo e innovador



## Ainara Basurko

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua
Diputada foral de Promoción Económica



# B Accelerator Tower:
# Berrikuntza irekia: epe luzerako estrategia
## La innovación abierta como estrategia a largo plazo

**Ainara Basurko Ekonomia Sustatzeko diputatuak nabarmendu du oso garrantzitsua dela korporazioek eta ETEek denboran jarraitua den berrikuntza irekiko estrategia bati ekitea, hori delako gakoa berrikuntza etengabea izan dadin.**

La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko, destaca la importancia de que corporaciones y pymes puedan abordar una estrategia de innovación abierta continuada en el tiempo como clave para que la innovación sea una constante.

# Bizkaia

Herrialde eta eskualde berritzaileek garapen- eta hazkunde-kota handiagoak lortzen dituzte. Gaur egun, horrek esan nahi du baliabide naturalen erabilera askoz jasangarriagoa egiten dutela; balio-kate sofistikatuagoak dituztela eta gizarte-kohesio eta berdintasun-maila handiagoak dituztela aurrerapen zientifiko eta teknologikoetarako sarbidean eta erabileran.

Berrikuntza eraginkortasuna eta erabilgarritasuna lortzeko etengabeko prozesua da, baina zeintzuk dira benetan berritzaileak diren lurraldeen bereizgarriak?

Ekonomia eragile ekonomiko publiko zein pribatuek eta bere kultura ekonomikoak osatzen dute. Bizkaia lurralde berritzailea eta indartsua izateko, benetan berritzailea den kultura ekonomikoa behar dugu.

Aldaketen aldeko kultura bat behar dugu. Eta, batez ere, lankidetzarako jarrera irekia duena.

Bizkaiko Foru Aldundiak urte batzuk daramatza lurraldeko enpresa- eta ekonomia-egiturari lankidetzaren kulturan sakontzea errazten dioten tresnak sustatzen. Hasiera batean, urrats txikiak eman ziren, Elkarlanean bezalako dirulaguntzen programekin eta open innovationeko lehenbiziko esperientziekin.

Hurrengo urratsa izan zen ezagutza, teknologia eta egituraren arteko lankidetzan eta interkonexioan sakontzea, funtsezkoa dena enpresa berritzaileak sortu eta garatzeko. Aurten, jauzi bat eman dugu estrategian, BAT, B Accelerator Tower ekintzailetzako nazioarteko zentroa abian jarriz. Estrategia Eusko Jaurlaritzak, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak partekatzen dugu.

BAT baliagarria izango da ekimen pribatu eta ekintzaile osoa bideratzeko, baita eremu publikotik talentua, inbertsioak, I+G+b eta kalitatezko enpleguaren sorkuntza sustatzeko bultzatzen diren tresna guztiak bideratzeko ere.

Aurrera egin behar dugu desberdinen artean esfortzuak kontzentratzeko lanean. BAT tokiko zein nazioarteko startup, enpresa, inbertsiogile, eragile zientifiko-teknologiko eta prestakuntza-zentroen komunitate handia izango da. Komunitate horretan, eremu digitaleko eta energiarekin, fintecharekin, mugikortasunarekin, logistikarekin eta foodtecharekin lotutako sektoreetako ezagutza eta talentua aurkitu ahalko dira.

BAT berrikuntza irekiaren kontzeptuan inspiratzen da, baita enpresa eta kanpo-eragileen arteko lankidetzak berrikuntza-prozesuak azkartzen dituenaren ziurtasunean ere, arintasuna emanez eta arriskuak murriztuz. Azken finean, horrela, lehiakortasuna ere handitzen da.

Korporazioek denbora luze daramate bere arrisku-kapitaleko sailak sortzen eta bere ateak kanpo-eragileei eta startupei irekitzen, bere erronkei aurre egiteko eta mugak gainditzeko. BATek harago joan nahi du; bere helburua da korporazioek eta ETEek berrikuntzaren ibilbide-orria hedatuko duten ingurunea izatea, berrikuntza irekiko estrategian eta metodologian oinarrituta. Esperientzia isolatutik harago joango da eta behar besteko jarraitutasuna duen estrategia bihurtuko da, beharrezkoa delako ahalik eta gehien baliatzeko premiazkoa den ikaskuntza bereganatzeko. Aurrekoaz gain, BAT lankidetza-ingurune bat da, berrikuntza irekiko estrategia horiek hedatzea erraztuko duena, korporazioak eta ETEak lehiakortasunaren etengabeko bidean mantentze aldera.

Bizkaiak neurri fiskalak garatu ditu, lurraldea enpresek berrikuntzaren alde egiten duten lekua izan dadin. Dorrek edo zentroek ez dute zentzurik konpromiso errealik eta proiektu irmorik gabe: berrikuntzaren benetako kulturarik gabe. Hain zuzen ere, hori eraikitzen ari gara. Asko dago jokoan. Teknologia-, gizarte- eta ingurumen-eraldaketa handiei aurre egiteko modua diseinatu behar dugu. Eta elkarrekin egingo dugu.

Los países y regiones innovadoras logran alcanzar mayores cotas de desarrollo y crecimiento, lo que hoy día se traduce en un uso mucho más sostenible de sus recursos naturales, en cadenas de valor más sofisticadas y en mayor cohesión social e igualdad de oportunidades en el acceso y disfrute de los avances científicos y tecnológicos.

La innovación es un proceso continuo en busca de la eficiencia y la utilidad, pero ¿qué distingue a un territorio verdaderamente innovador?

Una economía está constituida por sus agentes económicos, públicos y privados, y por su cultura económica. Para que Bizkaia sea un territorio innovador y pujante, necesitamos una cultura económica verdaderamente innovadora.

Necesitamos una cultura favorable a los cambios. Y, sobre todo, abierta a la cooperación.

La Diputación Foral de Bizkaia lleva algunos años promoviendo herramientas que faciliten al tejido empresarial y económico del territorio ahondar en una cultura de la colaboración. Fueron pasos tímidos al principio con programas de subvenciones como Elkarlanean y las primeras experiencias de *open innovation*.

El siguiente paso fue profundizar en la cooperación e interconexión entre conocimiento, tecnología y tejido; fundamental para la generación y desarrollo de empresas innovadoras. Este año damos un salto en la estrategia con la puesta en marcha del centro internacional de emprendimiento BAT, B Accelerator Tower. Una estrategia que compartimos Gobierno Vasco, Ayuntamiento de Bilbao y Diputación Foral de Bizkaia.

BAT servirá para canalizar toda la iniciativa privada y emprendedora y todas las herramientas que se impulsan desde lo público para promocionar el talento, las inversiones, el I+D+i y la creación de empleo de calidad.

Debemos avanzar en la concentración de esfuerzos entre diferentes. BAT será una gran comunidad de startups, empresas, inversores, agentes científico-tecnológicos y centros formativos, tanto locales como internacionales. Una comunidad en la que encontrar conocimiento y talento en el ámbito digital y en los sectores vinculados con la energía, fintech, movilidad y logística y foodtech.

BAT se inspira en el concepto de innovación abierta; en la convicción de que la colaboración entre empresas y agentes externos acelera los procesos de innovación, aportando agilidad y aminorando los riesgos. Al final del día se traduce en mayor competitividad.

Las corporaciones llevan tiempo creando sus propios departamentos de capital riesgo, abriendo sus puertas a agentes externos y startups para abordar sus retos y superar sus límites. BAT quiere ir un paso más allá; aspira a ser el entorno en el que las corporaciones y pymes desplieguen su hoja de ruta de la innovación apalancándose en una estrategia y metodología de la innovación abierta que vaya más allá de una experiencia aislada y se convierta en una estrategia lo suficientemente continuada como para adquirir el aprendizaje necesario que permita exprimirlas al máximo. Y BAT es el entorno colaborativo que facilitará el despliegue de esas estrategias de innovación abierta que mantengan a corporaciones y pymes en una senda constante de competitividad.

Bizkaia ha desarrollado medidas fiscales para que el territorio sea un lugar en el que las empresas apuesten por la innovación. Ninguna torre, ningún centro tiene sentido si no hay un compromiso real y un proyecto sólido: sin una verdadera cultura de la innovación. Y la estamos construyendo. Nos jugamos mucho. Debemos diseñar cómo afrontar las grandes transformaciones tecnológicas, sociales, medioambientales. Y vamos a hacerlo juntos.

# Corporate Venturing

## Baterako garapena eta berrikuntza startupekin: eredu baliodun ETEentzat ere bai

## Codesarrollo e innovación junto a startups; un modelo válido también para pymes

**© Europar Batasuna / Unión Europea**
**Jose María Siota, Andrea Alunni, Paola Riveros-Chacón, Mark Wilson.**

Argitalpena Europako Batzordearen Joint Research Center zientzia- eta ezagutza-zerbitzuaren txosten teknikoa da.
Esta publicación es un informe técnico del Joint Research Center, el servicio de ciencia y conocimiento de la Comisión Europea.

**Lankidetzan aritzea eta partekatutako arrisku-proiektuak batera garatzea: ezaugarri nagusiak, garapen historikoa eta deskribapen europarra.**

Partekatutako arrisku-inbertsioek (ezarritako enpresen eta garatzen ari diren startup berritzaileen arteko lankidetza) mekanismo ugari hartzen dituzte barne, aldeen inplikazio-mailaren edo lortu nahi diren helburuen arabera. Askotan, aukeratutako sistematika entitatearen berrikuntza-kulturaren araberakoa da, konpromiso-maila handituz planteatutako helburu eta baliabideen arabera. Adibideak ugariak izan daitezke: sariak; berrikuntza-erronkak; hackatoiak; baterako esplorazio-taldeak; baterako proiektuak partekatutako baliabideekin; elkarte estrategikoak; korporazio-inkubagailuak; korporazio-azeleratzaileak; arrisku-kapital korporatiboa (CRC); arrisku-kapitaleko bezeroak eta eskuratzeak...

Azkenengo urteotan, mekanismo horiek nabarmen hazi dira. Besteak beste, hauek dira enpresa handiek sortutako arrisku-kapitaleko baliabide batzuen adibideak: Airbus Ventures, AT&T Foundry, BMW Startup Garage, Disney Accelerator, Shell Ventures, Tencent WeStart and Wells Fargo Startup Accelerator

2013 eta 2019 bitartean, enpresa emergenteetan, inbertsio korporatiboen zifra hirukoiztu zen, 980tik 3 232ra. Aitzitik, inbertsioaren bolumen osoa zazpi aldiz biderkatu zen, 17 000 milioi euroetatik 121 000 milioi euroetaraino.

Ordutik hona, arrisku-kapitaleko mekanismoak teknologia-transferentziako mekanismoekin nahasten dituzten erakundeen adibide arrakastatsu gehiago egon dira; horietan, korporazioek eta ETEek hasten ari diren enpresa emergenteekiko lankidetzak handitzen dituzte, bereziki, unibertsitateetan eta ikerketa-erakundeetan sortzen diren horiekiko.

**Colaborar para avanzar, codesarrollo de proyectos de riesgo compartido: características principales, desarrollo histórico y descripción europea.**

Las inversiones de riesgo compartido (la colaboración entre empresas establecidas y startups emergentes innovadoras) abarcan un gran abanico de mecanismos, según el grado de implicación de las partes o los objetivos perseguidos. La sistemática elegida suele depender en muchas ocasiones de la propia cultura de innovación de la entidad, aumentando de grado de compromiso en función de los objetivos y recursos planteados. Los ejemplos pueden ser muchos: premios, retos de innovación, hackatones, equipos conjuntos de exploración, proyectos conjuntos con recursos compartidos, asociaciones estratégicas, incubadoras corporativas, aceleradoras corporativas, capital riesgo corporativo (CRC), clientes de capital de riesgo y adquisiciones...

Estos mecanismos han crecido de manera sustancial en los últimos años. Airbus Ventures, AT&T Foundry, BMW Startup Garage, Disney Accelerator, Shell Ventures, Tencent WeStart and Wells Fargo Startup Accelerator son tan solo algunos ejemplos de recursos de capital riesgo creados por grandes empresas.

Entre 2013 y 2019, la cifra de inversiones corporativas en empresas emergentes se triplicaba, de 980 a 3 232, mientras que el volumen total de esta inversión se multiplicaba por siete, de 17 000 millones de euros a 121 000 millones de euros.

Desde entonces, continúan surgiendo más ejemplos exitosos de instituciones que mezclan mecanismos de capital riesgo con los de transferencia de tecnología, en los que las corporaciones y pymes amplían sus colaboraciones con empresas emergentes que están comenzando, especialmente con las que se crean en las universidades y en instituciones de investigación.

Gaur egun, Europako gobernu desberdinak aztertzen ari dira horrelako prozesuetan egiturazko hutsuneak estaltzeko aukera, lankidetza-mekanismoak sustatuz, sorkuntzaren hobekuntzan eragin ez ezik, enpresa emergenteen eskalagarritasunean ere eragiten dutelako.

Besteak beste, hori programa hauen bitartez burutzen ari da: Startup Europe Partnership; InvestHorizon; Innovation Radar; InnovFin eta Europako Inbertsiofuntsen arrisku-inbertsioko funtsak.

Bestalde, Europan, partekatutako arrisku-inbertsioak eskatzen dituzten ETE eta korporazio asko daude, arrakasta-kasu ugari dituztenak. Aurreikusi da partekatutako arriskuko (eta berrikuntza irekiko) baterako proiektuen bolumenak hazten jarraituko duela, potentzial altuko enpresa emergente gehiago sortzen ari den ekosistema baten barruan.

**Inbertsio partekatuko proiektuak babesteko mekanismoen zenbait adibide, Europako Batzordetik partekatutako inbertsioko proiektuak babesteko abiarazitako mekanismoen adibide batzuk.**

Mekanismo horietako bat da Startup Europe Partnership (SEP), besteak beste, helburu hauek dituena: inbertsio berritzaileak areagotzea; etorkizunik oparoena duten Europako enpresa emergenteak aztertzea eta identifikatzea eta horiek konektatzea enpresa-entitate handi eta ertainekin. Mekanismoa Mind the Bridgek zuzentzen du, hauekin elkarlanean: London Stock Exchange programa; Nesta; Enpresa Emergenteen Europako Sarea; Scaleup Institute eta Bisite Accelerator.

Lankidetza honetan, korporazioek kapitala esleitzen dute eta berezko aditu-taldeak eskaintzen dituzte, enpresa emergenteei bere hazkundean laguntzeko. Bazkideen artean, korporazio liderrak, hezkuntza-erakundeak edo Europako Inbertsio Bankua bezalako inbertsiogileak daude.

Startupei dagokienez, oraindik ere, ekosistemak laguntza gehigarria behar du bere eskalagarritasunerako. SEPak hauxe uste du: “Europak asko aurreratu du startupentzako ekosistema bat bihurtzeko prozesuan baina, eskalagarritasunari dagokionez, atzeratuta dago. Enpresa emergenteek laguntza behar dute Europan lan egiteko eta hedatzeko [...]”. Horregatik, enpresa emergenteen ekosistema osoa eta arduradun politikoak zentratu beharko lirateke korporazioei, ETEei eta startupei laguntzean, modu eraginkorragoan lan egin dezaten elkarrekin.

En la actualidad, los gobiernos europeos se están planteando cubrir huecos estructurales en este tipo de procesos, fomentando mecanismos de colaboración que inciden no solo en la mejora de la creación sino también en la escalabilidad de las empresas emergentes.

Esto se está llevando a cabo mediante programas como el Startup Europe Partnership, InvestHorizon, Innovation Radar, InnovFin y los fondos de inversión de riesgo de los Fondos de Inversión Europeos, por citar algunos.

Por otro lado, Europa dispone de un amplio abanico de corporaciones y de pymes que solicitan inversiones de riesgo compartido, con muchos casos de éxito. El volumen de proyectos conjuntos de riesgo compartido (y de innovación abierta) espera continuar creciendo dentro de un ecosistema que está creando más empresas emergentes con alto potencial.

**Algunos ejemplos de mecanismos de apoyo a proyectos de inversión compartida puestos en marcha desde la Comisión Europea.**

Uno de los mecanismos es el Startup Europe Partnership (SEP). Entre sus objetivos están aumentar las inversiones innovadoras, el análisis e identificación de las empresas emergentes europeas más prometedoras y conectarlas con entidades empresariales grandes y medianas. Está liderado por Mind the Bridge en colaboración con el programa London Stock Exchange, Nesta, la Red Europea de Empresas Emergentes, el Scaleup Institute y el Bisite Accelerator.

En esta colaboración, las corporaciones asignan capital y equipos de expertos propios para apoyar a las empresas emergentes en su crecimiento. Entre los socios se encuentran corporaciones líderes, instituciones educativas e inversores, como el Banco Europeo de Inversiones.

Por el lado de las startups, el ecosistema todavía requiere ayuda adicional para su escalabilidad. Según el SEP «Europa ha progresado enormemente a la hora de convertirse en un ecosistema para startups, pero está rezagada en cuanto a su escalabilidad. Las empresas emergentes necesitan ayuda para trabajar y expandirse en Europa [...].» Por esa razón, el ecosistema de empresas emergentes más amplio, así como los responsables políticos, deberían centrarse en ayudar a las corporaciones, pymes y startups para que trabajen juntas de manera más eficaz.

**Lankidetza hauetan, zeintzuk dira nabarmendu behar diren proiektuak batera garatzeko mekanismoak eta partekatutako arrisku-inbertsioak? Zeintzuk aplikatzen dira maizago?**

**¿Cuáles son los mecanismos de codesarrollo de proyectos e inversiones de riesgo compartido que se deben enfatizar en estas colaboraciones? ¿Cuáles se aplican con mayor frecuencia?**





Erronka / Reto:
Europako Heriotzaren Harana
Valle de la muerte europeo



Joera / Tendencia:
Arrisku partekatuko inbertsioak
Inversiones de riesgo compratido



Aukerak / Oportunidades:
Eragiketa bateratuak eta neurrira egindako finantzaketa
Operaciones conjuntas y financiación a medida

**Baterako garapen-mekanismoen eta partekatutako arrisku-inbertsioen inguruko mito batzuk.**

- Korporazio handiek baino ezin dituzte egin partekatutako arrisku-inbertsioak. GEZURRA. Egia da gaiaren inguruko literaturan, oro har, ez direla aurkezten lankidetza-esparru bat arrakastaz ezartzen ari diren ETEen adibideak; hala ere, badaude zenbait adibide adierazgarri, energia berriztagarriko Fersa enpresarena bezalaxe edo Europako beste ETE hauen adibideak bezalaxe: Lékué, Pro Earth, Dearman, BA Systèmes eta Jenetric.

  Gainera, literaturan aipatu ohi diren mekanismoak, hackatoiak, korporazio-inkubagailuak, arrisku-inbertsioen sorgailuak eta korporazio-azeleratzaileak bezalaxe, primeran ezar daitezke ETEetan. Hala eta guztiz ere, enpresa hauek kapital gutxiago behar duten mekanismo azkarragoetan zentratu beharko dira, denbora eta aurrekontua murriztuta daudelako.

  Eraginkorra izan dadin, enpresek balio-proposamen erakargarria diseinatu beharko dute.

- Partekatutako arrisku-inbertsioetan, inbertsio handia egin behar da hasteko. GEZURRA. Egia da CRC bezalako mekanismo batzuek inbertsio-maila altua behar dutela hasteko eta mantentzeko. Aitzitik, hackatoiak bezalako bestelako mekanismo batzuek 10.000 euroko kopuru txikiak baino ez dituzte behar.

- Partekatutako arrisku-inbertsioek ez dute finantza-jasangarritasunik: GEZURRA. Sektore eta geografia desberdinetako negozio askotan bezalaxe, parte-hartzaile batzuek besteek baino emaitza hobeak lortzen dituzte. Izan ere, enpresa askotan, eredua arrakastaz ezarri ez ezik, finantza-jasangarritasuna ere lortu dute bere korporazio-unitateen barruan. Uste ez bezala, Harvard Business Schooleko Gompers eta Lerner katedratikoen arabera, ematen du korporazio-arriskuko kapitalaren eredu tradizionala arrisku-inbertsioen antolakuntza independenteek proposatzen dutenak bezain arrakastatsua dela, zehazki, korporazio-matrizearen eta zorro-enpresaren artean gainjartze estrategiko bat dagoen inbertsioetarako.

- Nire korporazioa edo ETEa edozein enpresa emergente baino hobea da. GEZURRA. Kontua ez da nor den hobea, baizik eta nola areagotu zure lehiakortasuna enpresa emergente batekin elkarlanean): Partekatutako arrisku-inbertsioetan arrakasta duten enpresak dira uste dutenak korporazioen eta enpresa emergenteen arteko aldeak abagune-iturria direla. Antolakuntza batek beste batean aurki dezake bere mugetarako konponbide bat. Adibidez, enpresa emergente baten baliabide-falta endemikoa konpentsa daiteke baliabideak korporazio batekin partekatzen badira.

**Algunos mitos sobre los mecanismos de codesarrollo y las inversiones de riesgo compartido.**

- Las inversiones de riesgo compartido solo son para grandes corporaciones. FALSO. A pesar de que la literatura sobre el tema no suele presentar casos de pymes que están implementando un marco cooperativo con éxito, hay varios ejemplos ilustrativos como el de la empresa de energía renovable Fersa y otras pymes europeas como Lékué, Pro Earth, Dearman, BA Systèmes y Jenetric.

  Además, los mecanismos que se mencionan normalmente en la literatura, como hackathones, incubadoras corporativas, generadores de inversiones de riesgo y aceleradoras corporativas, se pueden implementar perfectamente en las pymes. Sin embargo, esas empresas deberán centrarse en mecanismos más rápidos y que necesiten menos capital, debido a la restricción de tiempo y presupuesto.

  Para que sea eficaz, dichas empresas tendrán que diseñar una propuesta de valor atractiva.

- En inversiones de riesgo compartido hay que realizar una gran inversión para comenzar: FALSO. Es cierto que algunos mecanismos, como el CRC, necesitan un alto nivel de inversión para comenzar y mantenerse. Otros mecanismos necesitan cantidades pequeñas de tan solo 10 000 euros, como los hackathones.

- Las inversiones de riesgo compartido son financieramente insostenibles: FALSO. Como en muchos negocios a través de los distintos sectores y geografías, algunos participantes obtienen mejores resultados que otros. Hay ya muchos casos de empresas que no solo han implementado el modelo con éxito, sino que han conseguido sostenibilidad financiera dentro de sus unidades corporativas. Al contrario de lo que se piensa, según los catedráticos Gompers y Lerner, de la Harvard Business School, el modelo tradicional de capital de riesgo corporativo parece ser al menos tan exitoso como los que proponen las organizaciones independientes de inversiones de riesgo, en particular para las inversiones en las que existe un solapamiento estratégico entre la matriz corporativa y la empresa de cartera.

- Mi corporación o pyme es mejor que cualquier empresa emergente. FALSO. No se trata de quién es mejor, sino de cómo incrementar tu competitividad en colaboración con una empresa emergente): Las empresas con éxito en inversiones de riesgo compartido son aquellas que ven las diferencias entre las corporaciones y las empresas emergentes como una fuente de oportunidades. Una organización puede encontrar una solución a sus limitaciones en otra organización. Por ejemplo, la falta endémica de recursos de una empresa emergente puede compensarse si comparte recursos con una corporación.

# Quid pro quo

## Berrikuntza hiru mailatan
Innovación a tres bandas



Nazioarteko zenbait azterlanek erakusten dute gero eta enpresa gehiagok aukeratzen dutela venture building edo startupekiko berrikuntza irekia, bere hazkundea azkartzeko estrategia gisa. Hori da Euskontrolen kasua; ETEak duela 25 urte egiten du lan azpiegitura kritikoen kudeaketan eta mantentze-lanean. Orain dela gutxi, erabaki zuen korporazio-berrikuntzako tresna hau erabiltzea eta, egun, zenbait startupetan hartzen du parte. Horietako bat Aquadat enpresa da, ura monitorizatzen duena bere kudeaketa hobetzeko. Jarraian, biek azaltzen digute zer nolako eragina izan duen esperientziak horiengan. Lankidetza hain positiboa izan da, ezen Euskontrolek erabaki baitu sistematizatzea inbertitzeko startupen eta identifikatu beharreko teknologien bilaketa-prozesua. Hain zuzen ere, horretan lagunduko du BAT B Accelerator Tower ekimenak, arrisku-kapitala sustatu nahi duena, korporazioen eta ETEen posizionamendua finkatzeko eta enpresa emergenteak trakzionatzeko. Hemen, aurreratzen digu nola egingo duten.

Distintos estudios internacionales demuestran que cada vez son más las empresas que eligen el venture building o la innovación abierta con startups como estrategia para acelerar su crecimiento. Es el caso de Euskontrol, pyme dedicada a la gestión y mantenimiento de infraestructuras críticas desde hace 25 años. Hace pocos decidía adoptar esta herramienta de innovación corporativa y hoy participa en varias startups. Una de ellas es Aquadat, empresa que monitoriza el agua para mejorar su gestión. Ambas nos cuentan en estas líneas el impacto que la experiencia ha tenido en ellas. La colaboración ha sido tan positiva que Euskontrol ha decidido sistematizar el proceso de búsqueda de startups en las que invertir y de tecnologías a identificar. A ello contribuirá BAT B Accelerator Tower, iniciativa que quiere promover el capital riesgo como recurso para apalancar el posicionamiento de corporaciones y pymes, y para traccionar a empresas emergentes. Aquí nos adelanta cómo están planteándose hacerlo.

*“Aquadat bezalako startup batekin berritzea talentua, ezagutza eta konponbide teknologiko bereizgarriak batzea da, baita zure enpresari aukera ematea ere bere egungo balio-eskaintza osatzeko”.*



**Juan Manuel Vázquez Agra**

Euskontroleko zuzendaria
Director de Euskontrol

**Euskontrol**

**Zer nolako itzulkina lortzen du startup batean inbertitzen duen Euskontrol bezalako enpresa batek?**

Gure enpresan, dena dago lotuta bi ardatz hauekin: ezagutza eta konpromisoa, errespetua, konfiantza eta talde-lana bezalako balioak. Talentu profesionala eta pertsonala. Binomio horretatik abiatuta, Bizkaiko egitura sozioekonomikoa garatzen eta finkatzen laguntzen dugu, zehazki, azpiegitura kritikoen kudeaketaren eta mantentze-lanaren sektorean.

Startupekin elkarlanean aritzea elementu berriak identifikatzea da, Euskontrolen lehentasunezko ardatzak indartze aldera. Aquadat bezalako startup batekin berritzea talentua, ezagutza eta konponbide teknologiko bereizgarriak batzea da, baita zure enpresari aukera ematea ere bere egungo balio-eskaintza osatzeko.

Euskontrolen, aztertzen dugunean zein startupetan inberti dezakegun, hiru galdera egiten ditugu: nola lagun diezaieketen bere konponbideek gure bezeroei, azpiegituren jabeak direlako; bazkide estrategiko gisa, zer eskaini diezaiokegun enpresa gazteari: 26 urteko ibilbidean sortutako bezero-zorrorako sarbidea, konponbidearen erabiltzaile askorekiko kontaktua eta bere negozioa modu are eraginkorragoan haztea eragin dezaketen zerbitzuen dokumentu-zorrorako sarbidea (administrazioa, kontabilitatea, laborala...). Horren adibide on bat BATerako sarbide bera da!

Noski, aurrekoaz gain, geure buruari galdetzen diogu aliantza horrek nola susta dezakeen eraginkortasuna gure antolakuntzaren barruan. Gure eskarmentuak erakutsi digu laguntzen duela digitalizazioan aurrera egiten, konponbide berriak abian jartzeko prozesua arintzen, negozioa dibertsifikatzen eta posizionamendua finkatzen.

Maiz, nabarmentzen da, korporazio-inbertsioen bidez, enpresok laguntzen dugula startupen hazkundea trakzionatzen baina, egia esan, win win egoera bat da, zeinean denok irabazten dugun. Euskontrolen inbertsio-itzulkina da gure taldeko startup

**Euskontrol**

**¿Qué tipo de retorno obtiene una empresa como Euskontrol que invierte en una startup?**

En nuestra empresa todo gira en torno a dos ejes: el conocimiento y valores como el compromiso, el respeto, la confianza y el trabajo en equipo. El talento profesional y el personal. A partir de ese binomio, contribuimos a desarrollar y consolidar el tejido socioeconómico de Bizkaia en el sector de la gestión y mantenimiento de infraestructuras críticas.

Colaborar con startups es identificar nuevos elementos para fortalecer esos ejes prioritarios de Euskontrol. Innovar junto a una startup como Aquadat es sumar talento, conocimiento y soluciones tecnológicas diferenciales, es dar a tu empresa la oportunidad de complementar su actual oferta de valor.

Cuando en Euskontrol estudiamos posibles startups a invertir, nos hacemos tres preguntas: cómo sus soluciones pueden ayudar a nuestros clientes, los dueños de las infraestructuras; qué podemos aportar como socio estratégico a esa empresa joven: acceso a una cartera de clientes generada en 26 años de trayectoria, a un número importante de usuarios de su solución, a un portfolio de servicios que pueden ayudar a que su negocio crezca de forma aún más eficaz (administración, contabilidad, laboral, ...). ¡Un buen ejemplo es el acceso a BAT!

Por supuesto también nos preguntamos de qué forma esa alianza puede impulsar la eficiencia dentro de nuestra organización. Nuestra experiencia es que ayuda a avanzar en la digitalización, a agilizar el lanzamiento de nuevas soluciones, a diversificar tu negocio, a apalancar tu posicionamiento.

A menudo se destaca que, a través de las inversiones corporativas, las empresas ayudamos a traccionar el crecimiento de las startups, pero lo cierto es que esto es un win win en el que todos ganamos. El ROI de Euskontrol es ser un puente de valor entre las diferentes startups de nuestro grupo y el ecosistema de Bizkaia.

*"Euskontrol nos brinda su experiencia y conocimiento, así como acceso al mercado, poniendo a nuestra disposición todos sus recursos, infraestructura, capital y capacidad de producción".*

**Aquadat**

**Zein etekin lortzen dituzte Aquadat bezalako startupek korporazio-inbertsioa egiten denean?**

Afrikako esaera zahar batek hauxe esaten du: "Azkar joan nahi baduzu, joan zaitez bakarrik. Urrun heldu nahi baduzu, joan zaitez bidaideren batekin". Aquadaten, irmoki sinesten dugu filosofia horretan eta, horregatik, aplikatzen dugu. Hala ere, esaldiari ñabardura bat gehituko genioke: "Joan zaitez bidaide on batekin".

Gure jatorritik, proiektua erabat partekatzen duten bazkideak bilatu ditugu, hau da, proiektua xedetik balioetaraino partekatzen dutenak. Horren zenbait adibide daude; esaterako, eratu eta hamabost egunetara, BBK Fundazioa atxiki zen proiektura. Venture Philanthropyren adibide paregabea!

Covid-19ak eragindako itxialdia amaitu eta hiru egunetara, Deustuko Unibertsitateak, Cebekeko Crecer+ ekintzailetza-programaren saio baten ostean, jakinarazi zigun ingeniaritza bati Aquadat interesatzen zitzaiola. Ez genuen aurretiaz elkar ezagutzen eta, hala ere, Euskontrolekin egindako lehenbiziko bilera birtuala nahikoa izan zen antolakuntza identifikatzeko. Ikusi genuen antolakuntzak, hitz asko esan beharrean, gauzak egiten dituela; serioa dela; nitxo-gaitasun bereziak dituela eta elkar osatzeko potentzial handia duela. Deskonfinamendua hasi eta berehala, maiatzeko azkenengo astean, gure akordioa berretsi genuen notariotza batean.

Aquadaten, ondo dakigu testuinguru likido, hegazkor, zalantzagarri, konplexu eta oso dinamiko batean, aukerarik onena eta bakarra dela sarean konektatzea eta elkarlanean aritzea.
Euskontrolek bere esperientzia eta ezagutza eskaintzen dizkigu, baita merkaturako sarbidea ere, gure esku jarriz bere baliabide guztiak, azpiegitura, kapitala eta produkzio-gaitasuna.

Aquadatek ukiezinekin erantzuten du: motibazioa, pasioa eta statu quoa aldatzeko eta eragin positiboa sortzeko gogoak. Era berean, balioan jartzen ditugu gure harreman-kapitala, esperientziak eta I+G+bko proiektu berrietako lankidetza, Euskontrol Taldearen posizionamendu bereizgarria eta lehiakortasuna handitzen lagunduko dutenak.

BATek bi antolakuntzoi ahalbidetzen digu aurrera egiten jarraitzea, partekatutako balioa sortzeko, nazioarteko sare indartsu batera konektatuz: Bizkaitik mundura eta, mundutik, Bizkaira.

**Aquadat**

**¿Qué beneficios obtiene una startup como Aquadat cuando es objeto de una inversión corporativa?**

Hay un proverbio africano que dice: "Si quieres ir rápido ve solo. Si quieres llegar lejos ve acompañado". Aquadat es firme creyente y practicante de esta filosofía, que matizamos con un "ve BIEN acompañado".

Desde nuestro origen hemos buscado socios que compartan nuestro proyecto, desde el propósito hasta los valores. Hay varios ejemplos, a los quince días de nuestra constitución, se incorporó al proyecto la Fundación BBK. ¡Un gran ejemplo de Venture Philanthropy!

Tres días después del confinamiento por la Covid-19, la Universidad de Deusto, tras una sesión de su programa de emprendimiento Crecer+ en Cebek, nos informó del interés de una ingeniería en Aquadat. No nos conocíamos de nada y, sin embargo, esa primera reunión virtual con Euskontrol nos bastó para identificar a una organización más de hacer que de decir, seria, con grandes capacidades singulares de nicho y con un gran potencial para complementarnos bidireccionalmente. En cuanto comenzó la desescalada, la última semana de mayo, refrendamos nuestro acuerdo en notaría.

En Aquadat reconocemos que en un contexto líquido, volátil, incierto, complejo, y muy dinámico, la mejor y única opción es conectarnos y colaborar en red.

Euskontrol nos brinda su experiencia y conocimiento, así como acceso al mercado, poniendo a nuestra disposición todos sus recursos, infraestructura, capital y capacidad de producción.

Aquadat corresponde con intangibles como su motivación, pasión y ganas de modificar el statusquo y generar impacto positivo. Igualmente, ponemos en valor nuestro capital relacional, experiencias, y la colaboración en nuevos proyectos de I+D+i que ayuden a incrementar el posicionamiento diferencial y competitividad del Grupo Euskontrol.

BAT nos permite a ambas organizaciones seguir avanzando en la creación de valor compartido, conectándonos a una potente red internacional: desde Bizkaia al mundo, y desde el mundo a Bizkaia.



**Jorge García de Arco**

Aquadateko zuzendari nagusia
Director general de Aquadat

*“BATren izateko arrazoia da talentua, ezagutza eta irtenbide berriak emateko gaitasuna askotariko eragileetatik etor daitezkeela. Elkarren balioa ekar dezaketen erakundeak konektatzeko lan egiten dugu, dauden tokian daudela ere”.*



**Eriz Sainz Gurtubay**

BAT, B Accelerator Tower-eko zuzendaria
Director de BAT, B Accelerator Tower

**BAT, B Accelerator Tower**

**BATen helburua da lankidetza-esparru bat sortzea, enpresa, ETE eta startupen artean proiektuak batera garatzea ahalbidetzen duena. Nola zehaztuko duzue eredu hori?**

BATen, badakigu gure gizarte-ingurunea, teknologiak eta sektore bakoitzeko erronkak oso azkar aldatzen direla. Horren ondorioz, enpresek erronka askori egin behar diete aurre, baina baliatu beharreko abaguneak ere aurkitzen dituzte. Hori lortzeko, zuk ez dituzun gaitasunak dituzten pertsonekin lan egin behar da eta alderantziz.

Gure xedea da bidaide onak izatea eta, gainera, hobetzeko, elkarrekin lan egin behar dutenak aurkitu eta harremanetan jarri nahi ditugu.

Horretarako, hiru gauza egingo ditugu: BATera atxikitzen diren horiengandik oso hurbil egongo gara, horiekin aztertuz zer bilatzen duten eta zer behar duten; ekosistema integrala sortuko dugu, hori osatzen duten eragile guztien konpromiso errealekin, eta lankidetza eta garapena bultzatzen eta azkartzen dituzten dinamikak sustatuko ditugu.

Gure helburua da Bizkaia erreferentziazko lurraldea izatea berrikuntza irekiaren arloan. Hori lortzeko, enpresei bere berrikuntza-planak eta proiektuak diseinatzen laguntzen diegu; horri esker, bere erronkak identifikatzen ari dira eta behar bezala egituratzen ari dira bere lankidetza-berrikuntzako ereduak. Bestalde, administrazioak azkenengo hori sustatzen du mekanismo desberdinen bitartez.

Aurrekoaz gain, BAT esfortzuak egiten ari da aztertzeko nola bultza daitezkeen Aquadat eta Euskontrolen arteko lankidetza bezalako beste lankidetza egoki batzuk. Ekosistema hau erlauntz baten antzekoa da eta garrantzitsua da hori astintzea, jendea elkartzea, elkar ezagutzea, harremanak sortzea, batzuek besteengandik ikastea, partnerrak preskribatzea edo esperientziak partekatzea. Horrenbestez, garrantzia handia emango diogu dinamizazioaren eta networkingaren parteari.

